

GUILLAUME EPPHERRE (1911-1974)

Altzuhuru-Etxeberriko seme. Guillaume Eppherre 1911-n sortu zen, urriaren 19-an, hameka haurrideetako bigarrena.

Lehen mailako eskola sort-herrian iraganik, bigarren mailakoa Mauleko eta Uztaritzeko ikastegietan eman zuen, Baionako apezgaitegi handian sartu artean. Apeztua izan zen 1936-eko uztailaren 5-ean, eta matematika goienera igorri zuten Tolosako Unibertsitatetara. Baina Baionako apezpikutegian laster sar-arazi zuten idazkari bezala. 1949-an ohorezko kalonje izendaturik, Sant-Bernard ikastegian arima-zain ezarri zuten. 1967-an tituluzko kalonje egina zen. Eritasun luze eta oinazetsu baten ondotik hil zen 1974-eko urriaren 17-an, 12 egun Grégoire bere anaia apezaren heriotzetik landa.

Apez argitu eta goxo bat zen, itzal handiko: apezek gogotik dei egiten zioten beren arteko predikari gisa, eta jende asko joaiten zitzaion etxera kontseilu galdez: alabainan famatuak ziren haren gixakotasuna ezagutzale ona, nahiz "manexa" ere, hala beharrez, bazerabilan. Haatik, hego-aldeko euskalkiak frango arrotz zitzaizkon.

"Gure herria" aldizkaria zuzendu du, Saint-Pierre jaun apezpikua hilez geroz, (1951) bere biziaren azkenerraino.

"Eskualzaleen Biltzarra" batasuneko buruzagietarik izana da asko urtez.

"Herria" astekarian beti laguntzale eta sustatzale, ez bazuen ere maiz idazten.

Bazuen alabainan bertze euskal-ianik: zenbait urtez, aste oroz Xuberoko apezentzat apailatzen zuen euskaraz igandetako meza eta polikopiaturik banakatzen.

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Haren eskutik jalgi ziren Xuberoko eliza-liburu hauak:KATEXIMA (1941) BOTZEZ ETA BIHOTZEZ (1949), ELIZAKO LIBRIA (1943); HAURREN KATIXIMA (1956).

Euskal-literaturari buruz, bereziki ikertu zituen Etxahun-Barkoxe, Ligueix, eta Aita Lhande.

Azken hau hil-eta Euskaltzaindian hartua izan zen Guillaume Eppherre, haren ordain; eta batasun huntan sartzeko hitzaldiaren gaia izan zen "Aita Lhande ziberotar euskalzaïñaren orhitzapenez".

P.Lafitte